

ELEBELTZEN ALDEKO PLATAFORMAREN PRENTSAURREKORAKO KOMUNIKATUA

Askok jakingo duzuen moduan, aurreko astean herritar batek alkatetza dekretu baten bidez, mehatxuak eta presioak jaso zituen Elebeltzeko jarduna eteteko asmoarekin. Horrekin batera, Elebeltz kokatuta dagoen lokaleko jabeari ere mehatxu egin zitzaion, Elebeltzen kontrako neurriak harzeko presioa eraginez.

Lau urte daramatza Elebeltzek, zaborrez beteta eta usteltzen ari zen espazio huts bat berreraiki eta kolorez betetzen. Urte hauetan zehar, mota ezberdinetako ekitaldi kultural eta politikoak burutu dituzte bertan eta bertako ateak beti zabalik egon dira herritar guztientzat bertan ekimen ezberdinak aurrera eramateko. Horrela, herriko hainbat eragile eta norbanakok jarduera anitzak eraman dituzte aurrera bertan. Espazio hau okupatu eta berreskuratu zutenetik orain arte, ez da inolako arazorik egon, ez jabearen salaketarik, ez bizilagunen kezarik, etab. eta aldiz herritar askoren topagune bilakatu da.

Tamalez, Zaballosen udaletxe berriak ez ditu Elebeltzen ateak irekita ikusi nahi, ez gaitu antolatuta nahi, ez du kolorerik nahi, ez aniztasunik, ez kultura herrikoirik, ez espazio liberik. Eta horretarako, hirigintzatik egindako alkatetza dekretu bat erabili nahi izan du erabaki politiko bat dena estaltzeko. Gainera, Elebeltzen Aldeko Plataformatik egiten dugun irakurketa da hau ez dela eraso isolatu bat, herri mugimendu osoaren aurkako estrategia baten barnean kokatzen den beste eraso bat baizik. Beraz, inoiz baina beharrezkoagoa da denok batu eta erantzun bateratu bat ematea, horma herrikoi bat eraikitzea alkateak nahi duen mugimendurik, kultura herrikoirik, antolakuntzarik gabeko herri horren aurrean.

Hori dela eta, Elebeltzen Aldeko Plataformatik honakoa salatu nahi dugu:

1. Elebeltzeko jarduna geldiarazteko eta okupazio mugimendua kriminalizatzeko alkatearen saiakera.
2. Herritar bati egin zaion mehatxua.
3. Mehatxu hau aurrera eramateko egindako bermerik gabeko prozedura: alegazio eperik gabekoa, prozedura zenbakirik gabekoa, oinarri eta ondorio juridikoak zehazten ez dituzte, eta beraz, defentsa gabeko prozedura bat.
4. Herritar hau juridikoki inplikatzeko herriko aldizkaria erabili izana.
5. Hirigintzatik egindako alkatetza dekretu bat erabili izana erabaki politiko bat estaltzeko.
6. Pribatuen arteko harremanetan sartzeari eta bi aldeak mehatxatzea bere helburu politikoak lortzeko.
7. Astearte goizean Elebeltz ondoan gertatu zen sutearen susmagarritasuna.
8. Gaztetxeen eta okupazio mugimenduaren kontra herri ezberdinetan eman diren erasoak: desalojo ilegalak, jipoiak, irregulartasun juridikoak, epaiketak, etab.

Honen aurrean, Elebeltzen Aldeko Plataformak honako neurriak hartu ditu:

1. Elebeltzi eta bertako kideei babes osoa adierazi nahi diegu.
2. Mehatxua jaso duen herritarrari babes eta laguntza osoa eskeini.
3. Bermerik gabeko prozedura honen aurrean errekurtsio bat aurkeztu da udaletxean eta Arartekoaren aurrean ere salaketa jarri da.
4. Udaletxean mozio bat aurkeztuko dugu Elebeltzi babesa emateko.
5. Alkatearen mehatxu hau argi eta garbi erabaki politiko baten ondorio dela azalaraztea.
6. Elebeltz kokatuta dagoen pabeloiko jabearekin harremanetan jartzea akordio batetara iristen saiatzeko.
7. Gaztetxe eta okupazio mugimenduaren aurkako kriminalizazioa salatzea, eraso ezberdinak jasan dituzten gaztetxe eta bertako kideei gure babes osoa eskeintzea eta bereziki azken egunotan eraso hauen jopuntu izan den Tolosako Ezpala Gaztetxeari eta bertako kideei gure elkartasuna adieraztea.

Beraz, berriro ere azpimarratu nahi dugu Alkatezaren eraso honen izaera politikoa eta eman diren irregulartasun guztiak eta argi eta ozen adierazi nahi dugu ez dituztela gure ahotsak isilduko. Elebeltzi eta bertako kideei babes osoa adierazten diegu herria kolorez janzten jarrai dezaten nahi dugulako.

OKUPAZIO MUGUMENDUA AURRERA!
GAZTETXEAK AURRERA!
ELEBELTZ AURRERA!